

2022ko URRIAREN 20ko ERREKTOREAREN EBZPENAREN BIZEZ DEITUTAKO 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION BARNE PROMOZIO MODALITATEKO OHIKO PROZEDURAREN BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIO IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIAREN AKORDIOA. HAUTATUTAKO PERTSONEN ETA ESLEITU ZAIZKIEN LANPOSTUEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA EGITEN DENA.

2022ko urriaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen ebazpenaren bidez, administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-promoziokoak ere argitaratu ziren.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2022ko urriaren 20ko EBAZPENAREN bidez, deialdi espezifikoetan barne-promoziokoaren bidez sartzeko hautaketa-prozedura arautu duten oinarri espezifikoak argitaratzeko agindu zen.

Barne-promozioko modalitateko karrerako funtzionario izateko ohiko prozesuko epaimahaiak hartutako erabakiaren bidez, berariazko deialdietako hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin-behineko zerrenda argitaratu zen, deialdi espezifiko guztienetan.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, eta epaimahaiak alde zuzenetik ebatzi ez duen erreklamaziorik ez dagoenez 9.1 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, *hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin betiko zerrenda egin behar da.*

Horregatik guztiagatik, epaimahai honek

ERABAKI DU:

LEHENENGOA.– Barne-promozioko modalitatean karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuko deialdi espezifiko bakoitzean, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin betiko zerrenda argitaratzea.

BIGARRENA.– Horretarako gaitutako UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea (<https://www.ehu.eus/es/web/azp/barne-promozioa-22>); gaitutuen azken eta behin betiko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

HIRUGARRENA.– 7.4 oinarri orokorraren arabera, epaimahaien erabakiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa). Erabaki honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko gerenteari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtso hori idazki baten bidez aurkeztu behar da, horretarako gaitutako UPV/EHUko erregistroetan, bai eta Administrazio Publikoen



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen edozein lekutan ere.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan.

Epaimahaiko idazkaria